

**KALITATEAREN ETA  
BIKAIN TASUNAREN XVII. ASTE  
EUROPARRA**



**ALEX ROVIRA,  
"DATORKIGUN  
MUNDUA"**

**2011KO AZAROAREN 9AN**

**BILBOKO ITSAS MUSEOA**

**(Ramón de la Sota kaia, 1)**

## ALEX ROVIRA. "DATORKIGUN MUNDUA"

IZAITEK - Iraunkortasunaren Aldeko Euskal Enpresen Elkarteak - "Datorkigun mundua" jardunaldia antolatuko du 2011ko Kalitatearen eta Bikaintasunaren Astearen barruan. Ekitaldia datorren azaroaren 9an burutuko da, Bilboko Itsas Museoan, arratsaldeko 19:00etan.

XVII. edizio honetarako aukeratu den goiburua "Kudeaketa aurreraturantz" da, eta helburua, esperientziak konpartitzeak eta erabateko ejemplaritateak duten garrantzia azpimarratzea da, erakundeen lehiakortasuna bultzatuko duen ingurunea lortzeko.

Izaitek aurten antolatzen duen ekitaldian, **Álex Rovirak** "Datorkigun



**mundua**" izeneko hitzaldi-solasaldia eskainiko du. Bertan, Rovira jaunak, erakundeek etorkizuneko gizartean, aurrean izango duten paradigmatari buruzko ikuspegia emango du.

Rovira jauna ekintzale, idazle, ekonomista eta hizlari ezaguna da, eta, horrez gain, nazio eta nazioarte mailako enpresa garrantzitsuetako eta zenbait fundazio eta GKE-tako aholkulari da. Berak idatzitako liburuen bost milioi kopia inguru saldu ditu, horien artean, nazioartean eragin gehien izan duen "La Buena Suerte". Beste lanak, "La Brújula interior", "La Buena Vida" edo azken biak, "La Buena Crisis" eta "El Beneficio" dira.

Hizlari gisa burutzen duen lanean, entzule orokorrei zein enpresa munduko entzuleei zuzendutako edukiak zabaltzen ditu, eta bere gaien artean psikologiarkein, filosofiarekin eta soziologiarekin erlazionatutakoak zein enpresen kudeaketarekin erlazionatutakoak daude. Oso hizlari azpimarragarria da Europako, Ameriketako eta Asiako foro garrantzitsuetan.

## **EGITARUA**

### **IREKIERA EKITALDIA**

<b>19:00</b>	<b>Ongi etorria</b>
	Jesús Murga jauna - IZAITEko presidentea

### **HITZALDIA**

<b>19:15</b>	<b>Hitzaldia "Datorkigun mundua"</b>
	Álex Rovira jauna
<b>20:30</b>	<b>Eztabaida</b>

### **AMAIERA EKITALDIA**

<b>21:00</b>	<b>Amaiera ekitaldia</b>
	Jesús Murga jauna - IZAITEko presidentea

IZAITE – Iraunkortasunaren Aldeko Euskal Enpresen Elkarte – irabaz asmorik gabeko elkarte da, eta Garapen Iraunkorrarekin eta Enpresen Gizarte Erantzukizunarekin konpromisoa duten zenbait enpresak osatzen dute.

Izaite kideak honako hauek dira: A&B Laboratorios, Arcelor Mittal Sestao, BBK, Euskadiko Kutxa, Cespa Conten, EITB, Energía Portátil, Euskalit, Euskaltel, Fagor Electrodomésticos, Gamesa, Eroski Taldea, Ormazabal Taldea, Iberdrola, Ihobe, ITP, Kutxa, Metro Bilbao, Ofita, Reinoxmetal 2002 eta Vicinay Cadenas.

## MISIOA

- Ikasteko, ekimen eta jardunbide arduratsuei buruzko esperientziak **elkartrukatzeko** eta Enpresa Jasangarritasuna **bultzatzeko elkarrizketa foroa** eratzea,
- Ekimen pribatutik enpresen bikaintasunari, Gizartearen aurrerapenari eta Garapen Jasangarriari **laguntzea**,
- Uneoro Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiarekin eta Kudeaketako Bikaintasun Estrategiarekin **koordinazioan** aritzea, enpresa mundutik Administrazioaren ekimenak bultzatuz,
- Hori guztia, alor horretan nazioartean ematen diren ekimenekin bat datorren **globaltasun** ikuspegiaren barruan.

**JOATEKO ASMOA BALDIN BADUZU, GURE WEB  
GUNEAREN BITARTEZ EGIN DEZAKEZU:**

**<http://www.izaite.net>**

**Honakoak antolatutako ekitaldia:**

